



Andoaingo Piano Jaialdia osasun eta segurtasun protokolo zorrotzenak ezarrita egingo da datorren asteburuan

- Euskadiko piano-hitzordu nagusia dugun hau, Musika-Hezkuntza programari lotua dago. Ikasleak 15-30 lagun bitarteko taldeetan antolatuko dira, 13 saiotan banatuta, eta saio bakoitzerako aurrez hitzordua hartu beharko da
- Edizio honetan, Javier Gonzalez Sarmiento euskal konposatzailearen omenezko sari berezia aurkeztuko da eta berriki argitaratu diren *Txikiludio* pieza berriak ere joko dira
- Jaialdiaren aurrerapen gisa, ostiralean hilak 26, 19:15ean, Francisco Escudero Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoak kontzertua emango du

DEI Adar Elkarteak eta **Andoaingo Udalak** musikaz modu seguruan goza daitekeela ulertuz, Andoaingo Piano Jaialdiaren XVI. edizioa egitea erabaki dute. Honela, lehiaketaren antolatzaileek, DEI Adar elkarteak eta Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Laboral Kutxaren eta Loidi pianoen laguntza izango dute.

Otsailaren 27an eta 28an Andoain pianoaren hiriburu izango da beste behin ere. Ezin bestela, osasun neurriek eta koronabirusaren aurkako protokoloek markatutako edizio berezia izango da aurtengoa. Hala eta guztiz ere, urteroko hitzordu honi balioa emanez, Txixu Ruiz kultura zinegotziak dio, "kultura, oro har, eta musika, bereziki, ezinbesteko antidotoa" direla "ohiz kanpoko egoera sanitario honi aurre egiteko".

Edizio berezi honetako segurtasun neurriak

Azken edizioetan 700 musikari gaztek hartu dute parte hainbat modalitatetan: bakarlarria, 4 esku eta 6 esku. 16. edizio honetan, segurtasun eta osasun protokoloak betetzea eskatzen duen pandemia medio, partaide kopurua murriztuko da modalitate bakarrean egingo dute, bakarlariarena, hain zuzen.

Segurtasun-protokolo berezi bat ezarri da, ikasleak 15-30 pertsonako taldetan antolatuko dituenak. 13 saiotan banatuko da jaialdia, eta saio bakoitzeko parte-hartzailea eta haren bi laguntzaileak burbuila-talde gisa hartuko dira. Ikasle horiek, horrela, modu isolatuan jardungo dute eta piano-jotzaile bakoitzak ordu zehatz bat



izango du bere emanaldirako. Halaber, maskara ezinbestekoa izango da une oro, eta azpiegitura, aretoa edo pianoa garbitu eta desinfektatzeko neurriak hartuko dira etengabe. Partaide eta laguntzaileek eskura izango dituzte higie-ne eta garbiketarako beharrezko bitartekoak.

Era berean, jaialdiaren 16. edizioak Javier Gonzalez Sarmiento euskal musikagilea omenduko du. Bertan, pianorako 24 *Txikiludio*-en estreinaldia izango da, baita 24 *Classic – Jazz Preludes* lanarena ere. Sari berezi honetan A, B eta C kategorietan eta bakarlari modalitatean parte hartuko da. A eta B mailetan *Txikiludioak* programatuta daude eta 19 urtera arteko piano-jotzaileek parte hartu ahal izango dute. C kategorian 24 *Classic -Jazz Preludes* joko dute eta 25 urtera arteko piano-jotzaileek parte hartu ahal izango dute.

Berataratzen direnentzako aparkaleku bat atonduko da Makaldegiko aparkalekuan, merkatuaren ohiko antolaketari eragingo diolarik. Gaur egun, asteko merkatua 2 gun e ezberdinetan egiten da, osasun-neurrien ondorioz. Andoaingo Udalak jakinarazi duenez, larunbat honetan, otsailak 27, merkatu osoa Goikoplazan jarriko dute, eta han kokatuko dira bai elikagaien saltokiak, baita bestelako produktuen saltokiak ere.

16 urteko ibilbidea

Duela 16 urte, Andoaingo piano jaialdia asmo argiekin sortu zen: pianoaren ikasleen eta irakasleen topagunea izatea, musika ikasteko ekimenak bateratzea, interpretatu beharreko musika estiloak aberastea, eta ikasgelan ikasitako guztiak eszenaratzea, musika komunikaziorako eta sozializaziorako bitarteko bihurtzeko.

Ekimena piano-jotzaileen topaketa bihurtu da, 5 eta 18 urte bitarteko milaka ikaslek parte hartu baitute urte hauetan guztietan zehar.

Francisco Escudero Musika-Eskolako Orkestra Sinfonikoaren kontzertua

Jaialdiaren atarian, otsailaren 26an, ostirala, 19:15ean, Francisco Escudero Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoaren kontzertua izango da Bastero Kulturgunean. Garikoitz Gonzalez Mendizabalen zuzendaritzapean arituko da orkestra.

Sarrera doan izango da, baina gonbidapena jaso beharko da aurretik. Interesatu eK Kutxabank bidez eskuratu ahal izango dituzte sarrerak, otsailaren 23tik aurrera. Hala ere, aurrez aurreko salmenta 10:30etik 13:00etara izango da goizez, eta 16:30etik 19:30era arratsalde z, ohi bezala Basteroko leihatilan.

Andoain, 2021eko otsailak 22.